euskal - orria

¡Zarauztarrak entzun!

Beñiz ere egun gafantzaikoa degu gañean, ta gogoz koajetsu ta trebe sartu beharra gera.

Zarauztarko eriyak, "estatuto" zale zala ongi agertu zuan oñongo autaskundetan. Iru edo lau zital izan ezik, gañuntzeko guziak bat egiñik joka bizkiran arsudi alde.

Euskotafok araudi gurenda lortzeko, aldapa gaizto neketsua igaro bear izan degu. Tratu txar askoren ondorengo gurenda orixe.

Emengoa egiña daukagula guziok dakizute; orain Madrid'ko "korteak" onitrizita eman bear dute, Korte oyetan zeiñ izango diran, datoren igandez erabaki bear. Estatutoak etsai asko ditu Españi alde ortan, agiñ zotzekoak gañera. Igaro dan igandez, Gil Robles, Royo Villanova ta "konpañian" itzaldiak entzun giñuzenok, ongi ikusten degu ori.

Euzkadi ta Kataluña'n aurka zerbait esandakoan, orduantxe irabazten dituzte txalorik sutsuenak. Eskubitar oyen artean gofoto bizia dago guretzat, ta ezkertafakiñ ere eziñ gifiezke geyegi piya.

Angoak egingo diguten onari begira egon gabe, emen geok moldatu bear degu anaitasunean. Geure eriya ongi aldeztuko duten gizonak bear ditugu. Alderdi guziak jafi dituzte berenak. "Tradicionalista" deritzaion alderdi orek ere izendatu ditu bereak, ta aukiñ kontu aundia bear degu. Len "estatu-toaktiñ" egiñ dutenari ongi begiratu. Nundik lur joaziko aritu dira. Gotzai edo "obispo" jaunaren erabakiak ere ez dituzte aintzakotzat artu; bere aurka joan dira; azken eguna arte, araudia "laikoa" dala esanaz gertu zaiskigu. Oraiñ au ta ori tapatu nyez ari badira ere, gezur biribila.

¡Zarauztafak! ¡Ernai orraintxe!

Zer euskaldun geran ikusteko eldu da garaya.

Abertzaletasunak zer iraupen izan duan ikusi dezute. "Politika" danak utzita, "estatuto" alde lan egin duten guziyak alkarturik "araudi zale" izenean bear ziran aldunak aurkeztea oldoztua zegon. Abertzaleak, gizon bat beren aldekoa izanarekin, konforme zeuden beste oyekin batera joateko. Baña... jakiña, abertzaletasunagandik ufun nai dute, ta aparte geldidu dira.

Etzayo ajolik. Seitatik bost gizon jakintsu azkar jafiak dauzkagu. Monzon, Leizaola, Irujo, Pikabea ta Irazusta ez dira gero edozeiñ. Auek dira Euzkadi benaz maltatzen dakitenak, ta kate gaizto trakets guztatik azke ikusi nai dutenak. Beroyen alde joka bear degu itxuan.

¡Zarauztafak eldu janari! ¡Oraln da garaya! ¡Euskalerfyanganako maitasun apurik dezutenok, eman jaun auen alde botoa!

¡Langile, nekazari ta gañontzekoak, agertu euskotar benetako!

EZKON DEYAK. — Igandez ziran deyetan, Antonio Usabiaga adiskide zintzoa ta María Larrañaga, "Irusta" basetxeko neskatxa liraña.

—Orobat, Manuel Egibar aberkidea, Juanita Elzagire, abertzale ezagunarekin. Urte askotarako zorion aseguña izan bedi beren artean.

GAXORIK. — Arkitzen da, "Untxiñ" basetxeko andrea. Lenbaitlen osatzea opa diogu.

ALKATE JAUNARI. — "Azken Portu"tik asi, ta Lizundia'ren fabrikara inguratzea ez dago oraintxe lan xamurra. Bertako loi ta zikinkeriak ez du neurirk. Emen auzoko gizon batzuk etofi zaizkit, zuri eskari ori egitea merezede egingo al nukien esanaz. Uste det aintzakotzat artua izango dala. Orixe konpontzea, gogoz eskertuko genduke.

BASARI

¡Gipuzkoarrak, eup!

Araudi Estatutoa lortu edo konsegitu genduan emen. Orain datoz beste alkatez alde edo aldun diputaduak aukeratzera.

Arrun diputadu oyek, Araudi Estatuto aldezko zale bizkak biar, ta Gipuzkoar eta euskotar guztiak arg' ta erne ikusi orain.

Gipuzkoako eriyak ikusi ta jokatu biar du orain garbi, ta autarkia (botua) zintzo eman gure eskubidearen aldez edo Estatuto aldezkoari.

Alderdi Jeltzalea edo Partidu Nazionalista ara or, garbi ta goi!

—o—

¿Bai ote dago, lenago Araudi zale eta orain jafaituko ez diotenik bere aldezko aldun diputadu kale garbi aldez dijoanari?

¿Lenago Araudi Estatuto aldez bai ta orain aldun diputadu dala ta, gure gure ta Araudi aldez eman bearean onenian okertu ta aurka egin, kontra dirian Aldun diputaduai emanaz autarki botua?

Ez dedila onelakorik gertatu. Ori egiten duanak, kezka betiko izango du. Bere gizontasuna beratuko du, one nian uste gabean, bañan oregatik antxe emen agertzen degu orain garaiz denak jakin dezaten..

Gizonki edo ez! Jaungoiko ta Legu Zar edo ez!

Ezin diteke bitara iñolare. ¡Edo Euzkadi'kin edo aurka kontra!

—o—

Nun nai batasuna egiten da, batez ere Jaungoiko ta Eñaren aldez etorkizun aundien bat aurrera atera biar danean. ¿Zerk edo nor dala ta emen ez da gertatu ori? ¿Euzkadi bañengoak ondo artuko genduke, ta nork orduan ta nundik dator gure batasuna ez giteak? ¿Emen? ¿Erbestetik?

Erantzun zeok gipuzkoafak eta ekin!

—o—

Nik autarki botua eman nuan, Araudi Estatuto Basko aldez, bañan... gure etxeko autarki botuak erdibana emango ditu...! Ori entzun diot nere lagun bati. Onela esan ziola sendi batek edo.

Ez, ez, anai maiteak, ez. Ezin diteke ori. Araudi Estatutoa ona dan aldetik, ez dago bitartekorik! Jel edo Jaungoiko eta Lege Zafakin edo Aurka kontra. Jaungoiko aldez ta Jaungoiko eta Lege Zafakin edo aurka kontra. Eusko seme ona edo okerra! Zu ta Euzkadi aldez elpian, edo Euzkadi ta zure buruen aurka kontra egingo dezu.

Zure autarki botuak biar du Jel ta Araudi Estatuto aldez!

Ez dago bitarterik. Egia bat da. Bateki nta bestinkin joatea, denakin ondo geldizteko ezin. Ori oker jokatzea da.

—o—

Araudi edo Estatuto Alder, agertu dira bost aldun edo diputadu gai. Oyek dira Irujo, Pikabea, Leizaola, Monzon ta Irazusta.

Oyek ez dabiltza zalantza edo dudan. Garbi esan dute, Araudi Estatuto aldez gogor egingo dutela. Beraz gipuzkoar denak oyekin biagu bat.

Gipuzkoar guztiak, bat! Zintzo Araudi aldez oyekin!

Gipuzkoafen autarki botua oyentzako biar du!

Gora Gipuzkoafak! Zutik denok! Gora Eusko Araudia! Gora Jel!

—o—

Etorkizuna ikusia dago. Eusko Alderdi Abertzaleak edo Partidu Nazionalistak, dena aufetik artuta bifinduko du. Gure Eusko Eñia esnatuda iya dena, ta auriki kontuk Eusko gaistoakin, edo okefakin.

Mundu guztian Gure Goiko Jauna edo Jaungoikoa ta Eñiya gordetzen da. Dios y Patria, da denaren lenengo izaera. Euzkadin, berdin, biar du.

Bi oyetako baten aurka kontra dabilenak, kalte aundiya egiten du eta Jaungoikoak eta gure Abefiyak, kontu artuko diote eusko seme oker ta gaizto guztiai. Oraiñ ikusi garaiz! Gora batasuna! Gora Euzkadi ta,

Gora Araudi gurea ta Aldun Eusko garbi zaleak.

Jotake

Errera-Altza

ANTZESLARIAK. — Errera'ko Eusko Etxea'ko teatro egileak azkeneko igandian izanak dira Lezo'n antzerki jai bat egiten. Bertan antzestu zuten, len emen egin zuten lau ataleko "Eguzko argia". Oso poztuak etoriyak dira lezotarak egin ziyen onetoriyagatik.

Oraingo eleziyo denbora au igarotzean, jafaltzekotan daude lengo negualdiyan bezela, aurten ekin ziyotenez emengo Batzokiyan antzerki jayak egiten.

AUTESKUNDEAK. — Beñiz ere auteskundé auretan gera.

Il onen 5'an, ereratar altzatar danak, edo geyenak beintzat, erakutsi zuten beren Araudi Estatuto zaletasuna, eta itxaropen aundiya degu, oram gertutzen ari zaizkigun abetan ere, jakingo dutela ordun bezela beren eginbeafa betetzen.

Ikusi giñutzen egun ortan zeintzuk diran Euzkadiren eskubidearen maitzaleak. Danen gogoan dago, eta ez da berialakuan astuko, beren autarki botua eman ez zutenak, eta aurkako "no" eman zutenak ere geyentxoak ezagunak dira.

Españazale eskubitar alfonsino edo karkak (berak jakingo dute zer diran, efege zaleak beintzat) beren agintari batzuk naiz Araudi Estatuto aldekoak izan, ez zizayen ondo iduritu berak ere ala izatia, bada dirudinez lalko antzekoa zan ta... Onei erantzun edefa Gotzai Ontspoak eman zion,

Españazale eskertafak beñiz, beti azaldu dira guretzako maltenak diraden gauzaren arerio kontrariyoak, eta oraingo ontakoak ez gaitu ainbeste arritu. Zertxobait bagenekigun beren arteko "disciplina" nolakoa zan; bañan igande ortan, batzun batzuk kendu ez kero, gutxigi, garbi erakutsi zuten zenbaterañoko kasua egiten diyen beren agintariyen aginduari, beren gustokoa ez bada; eta agindu ori ez izan.

Erakuspen aundiyak izan zitin egun ofek gu euskotarentzat. Badakigu, len ere bai baño orain obeto, igande ortan eta bei zeintzuk sayatzen diran Euzkadi'ren onbidia lortzen.

Datoren iganderako lau edo bost alderdik edo partiduak izendatu dituzte beren gizonak, eta bakoitzaren aldezkoak ibiliko dira au ta bestia esanaz bañan danantzako zer erantzuna izango da. Alegiya, Estatuto aldekoak ezagutu giñuzela zeintzuk lan egin zuten eta zeintzuk prestuago emendik aurerako lanak ere egiteko dauden

Bada lengoan naiz bayeztu Araudi ori, ortan ez da bukatzen arazo au; Madrid ko kortietan eginbear gogofak sortuko ditu bera aldeztutziak, eta ortarako gizonak izendatu biar ditugu datofen igandian.

Ofegatik, arazo ontako gauzak ematen duten lanerako egunero biltzen dira. Batzokitan, nola Altza'koan ala Errera'koan abertzale ugari, emakumezkoak eta gizasemezkoak.

Emakumeak, beren lenengo egintzan lan asko egin zuten, eta beragatik itxaro degu oraingo bigafen ontan ere berdin egingo dutela, edo geyago al izan ezkerō.

Senagokoan, lan efexa zan, danak alde batekoak bai ziran, bañan orraingoan ez dira ordungo efextasunak izan go, eta laña pixka bat zallagoa izango ote duten nago. Bañan, aslera nolaz ain ondo eman zuten oraingokoako oltuagua kdaude, eta beren abertzaletasunak asko lezake.

Il onen 5'an erakutsi zan euskotafen Araudi zaletasuna eta oraingoan erakutsi biar da ez dala euskotafen biyotzik oztu, baizik pifi jafaitzen dutela asmo beretan.

Ortan gaude, edo obeto esateko, ortan gabiltz.

Itani

Andoain

¡¡EUP!!

Beñiz ere badator eguna erakusteko gure indara eta gure maltasuna gure aberi bakar eta eder onen alde.

¿Nola erakutsi gure maitasuna Euzkadi'ren alde?

Lana egiñaz, salatuaz autarki edo botoa gure aldun izateko izentatuak daudenen aldez emanaz.

Eusko araudiaren alde eman gendun geren botua, ¿zertarako, berdin orain ukatzen badiogu gure jaguntza? Alper alpefik lenengo botua baldin orain ukatzen badegu gure laguntza.

Estatutoaren eta Euzkadi'ren alde lan egiteko "Madrid'ko Kortietan" izentatu dituzte gizon batzuek. ¿Zein? Nazionalistak, gure aberia eta gure oltura zafak biotz biotzez maite dituzten gizonak, Leizaola, Monzon, Irujo Pikabea eta Irazusta. Jaun oyek dirade guk aufera atera biar ditugunak; oyek bakafik, zergatik zur egon gindezke guk nai degun bezela jan egingo dutela Jainkoa eta Lege Zafa'ren alde.

Eta zu nekazaria, iñor baño biartuago zaude, gizon abertzale olei laguntzera, emanaz zure botua.

¿Orain baño obeto nolz izango dezu zure gogoa betetzeko aukera? ¿Etzabiltza diputaziora jo eziñik, erderaz ez dakizulako, ikastolara biali semea eta etxeratu ezertxo ikasigabe erderaz ez dakiñako, eta bein edo bein biartsen geradenean lege gizon batena, eta zuk erderaz uiertzen ez dezulako ziria sartzen digu kenduaz diru mordoska edefa? Eta zanbat ofelako.

Nekazaria, basefitara, ez astakeririk egin. "Damua garaiz". Orain dezu garaia zuk nai dezuna irixteko. Ortarako eman zure botua len izentatu ditudan gizon euskaldun jator oldi.

OR KONPON

SANTANDER'tik

Bi euskotar españar ta prantzetar artian

Imanol labürditarra ta ni, aizo txaldetik ziar juan giñuazela, sartu giñan oñetafuak garbitu ol dituen daben lekuko baten. Jazafi giñan an zeudeñ alkitan nasai nasai txotek, ta bitartian izketan geben prantzeraz euskeraz ez gebenian egiten.

Onetan gauzela("limpiabotas" artuan euen Paristar bat ta, entzun eceian egiten gebela prantzez asi zan bera be izketan geugaz. Baña beriz beste "limpiabotas"ak zelan ziran españafak esan eutzain ixilik prantzesari:

Ta prantzesak erantzun eutsoen:

—Il sont basques .

Ori entzun alaz españarak, "limpiabotas" bat asi zan bafiketetan araudi edo estatutuen gain.

Gu ixildu gitzan entzutiatik ia zer esaten ebein da, alan asi ziran:

Españar bat: "Parece que la mayoría de los vascos quiere el Estatuto".

Beste españar batek: "Pues habrá que darles".

Beste españar batek: "Eso ya se verá".

Lenenguak: "Si hemos dado a los catalanes, ¿porqué no les daremos a los vascos?"

Irugafenak: "Porque son separatistas, no quieren ser españoles".

Lenenguak: "Yo pienso como Azaña, que hay que darles el Estatuto".

Irugafenak: "Yo como Royo Villanova, que no hay que darles".

Lenenguak: "Tú qué sabes de eso".

Irugafenak: "¡Calla, idiota!"

Ona eldu ziranian esan euztan Imanolfek: "I, au dok ona, euskaldunak ze bierdun edo zer ez dun biar "limpiabotasak" erabagiten dnue emen. Eta beñiz euskotafak itxoiten onelk zer erabagiten dabenari".

Baña zelan eltzenzan eskupekua edo "propiñia" emoteko orduba urteten dozku prantsezak miñ laban labanaz:

"¡Oh!, les basques sont les megores faiganseses, il sont bonnes eta xelentes pejgsonas"

Ondoren españafak, "diplomatico" txikiauak ez izateagatik esan ebein:

"...si, son muy campechanos y buena gente; desde luego, entre los españoles so nlos mejores..."

Ta Imanol'ek asafetuta:

"Ui, tres bonnes, dans le guerre mun diel, e nafrque... ui tres bonnes",

Neuk be, ez gutxiago izatiatik:

"Si, muy buenos, para alfonsinocarlistadas, afrfanadas, etc, etc., estupendos para servir de tenazas..."

"Limpiabotasak" erantzun dozkuen:

"Je suis internationaliste"

"Nosotros semos internacionalistas".

Geuk beñiz onekin amaitu geben: "Desde luego, las fsenas son de lo más internacionales".

Ur

Kiskiyakin

Eusko Araudia zela ta zer esana ugari ibili zen bastafetan.

Mota guztietakoak entzuten ziran; gorinak, gurienak eta abar.

Gofi oyetako batzubek aritu ziran esaten, alpefik izango zirala gure lanak, ez gendubela aterako bear ainbeste autarki-ta.

Zurietako aiton motz batek beñiz (ezdakit nondik jakin da) Eusko Araudia oso galestia zela eta ezdakit zenbat mioi bearko zirala bera aterateko.

Beñketa oyek alper alpefikakoak izandu ziran nik esan nai detan uri ontan, zergatik ¡entzun ondo! eunetatik laugei ta amabi autarki atera ginduzen (92 %).

Ta, uri ortan bezela, Gipuzkoa eta Bizkaya osoan efez atera da Eusko Araudia, gutxiagokoa izanik Araba.

Eusko Araudi ortaz idazten asita gogoratu zait bertan gertatutako gertakizun bat.

Lantoki batean "politikn" alderdi askotako langileak ari ziran eta abertzale batek Eusko Araudia zer zan erakusten zuan liburutxo bat utzi ziyon beste bateri.

Numbait ez izan bere gogozkoa eta ofa liburutxo ofen gañean idatzita zer bidaldu ziyon: R. I. P. El señor Estatuto Vasco falleció el día 5 de Noviembre de 1933 después del escrutinio.

Ikusten dezu, irakurle, zeñen buru azkafa dan bera. ¿Nolaz asmatu duben? Eutsi, eutsi miñari; ori guria dek ta.

Beñiro ere, olek, ofelaxe ariko dira murmuñan bai, eta ez bildurtu, Araba'ko artzaiak bañe ezlakiñagoak dira oyek ta.

Eliza eta apaizaren aurka mintzatu ezkero iruditzen zayote guzia badakitela. Ta bitartean gixaxo batzuk izaki.

OR NAIZ

Oldozpenak

Zorion bideak irikik ditugu.

Azkatasun osoa zaigu abertzaleoi zorion bete.

Araunkan gabiltz. Gure gogaiak afaun. Beti afaun eta afaun, zorion bideak begi aurean zaizkigu. Zabal begiak... antxe, urunean segok gure zorion portuba. Bazegok orraindik izerditu beafa. ¡Baño zasoi dek abertzalea! Begiztatut diago beintzat azkatasun portuba ¡a animo! Orain, len baño bertaraxeago zeukagu. Gañera, auferantzean, gogofago egingo diagu afaun. Gureganatu diagun ontzia lén ez bezelako balta: Estatutoa. ¡Aupa mutillak! Laxter bere altzoan gaituk, eta ordun, ler bearean bear bada, ¡baño auferá! zorion portura ¡azkatasun osoaren portura!

¿Oro alaitasun bear lukenean arpegiun?

—o—

¡Ez al diagu ba auferantzean, euskotafok, gure eixean, len ez bezelako agintea izango? Napafoa etzaigu zorionkide diote ao batez abertzaleak...

Oraindik orain Napafoa'n ninduzun. Napafo'ko amets eñan: Leitza'n. Abertzaletasun itzaldik entzun naink eñi osoa bildurik zeukan. Napar bat mintzo zan lenen. Arabar, Bizkaitar eta Gipuzkoafon gaurko zorionari buruz ari zan. Noski, min zemaion bere Napafoa eusko anaidiz landa ikusteak. Min etzia. Eta begiak gorintz jasorik zion. "Jaungoikoa'k daki ondoen zer dagin. ¿Pentzatzen al dezute ,gaur, gure Napafoa begirauz, Esauoak soruko litzuken gofoto-aizeak? Jaungoikoa'k daki ondoen zergatik Araudiz kanpora ardi galdu gixa gabiltzan. Napafoa abertzale dedila lenbizi, eta ordun, Estatutoa zorion itufi izango zaigu. Gaur, Napafoa'ren galbidea. Jaungoikoa'k badaki ondo aski zer dagin".

Poztu gaitean bai gure Estatutoaz. Napafoa etofiko da. Etzan komeniko noski gaurkoz Napafoa gurekin izaterik. Jaungoikoak ondo daki zer dagin. ¡Napafoa zorionkide izango zaigu! Apika laister.

—o—

Eñi-gurenda benetan azkenekoa ¿Nork aizatu ote ordea eñi-biotzean Euskoa-Araudi naia? Gaizto ez dan nornaik aitor bear: abertzaletasunak.

Oraindik zar ez dala Oñati inguru nebilen. Bazkaltze asmoz, ostatu batean sar giñan ene lagun bat eta ni. Gure mai aldamenean iru lau gizon politikari buruz zeudelarik, belafi ernai jafi giñan. Bizkaitafak ziran. Bat beintzat durangotafa. Egezaleak edo. Dagokienez, erdera zerabilten buru belafi. "Todo el pueblo está contaminado del ideal nacionalista", zion batek.

Gaur plebiscito ondoren uraxe gogora zait. Gizon are nesana "todo el pueblo está contaminado de ideas nacionalistas". Abertzaletasunak eraman du eusko-eria araudi bila. Abertzaletasuna, txifitu guztian sartu baita.

Abertzaleok ez gera geigei poztu bear. Bide luze degu oraindik gurea irixteko. Azkatasun osoa. Estatuto-ontzi altzoan sar ,eta araun, araun eten gabe. Gaur Araudi eske eña abertzaletasunari esker. Guk beti araun, eta laister azkatasun osoa eskatuko du.

Uziufe.

Nekazari arazoak

1933'go Azaroa ila benetan gogoangafi izango da eusko odola daramakigunontzat.

Lenengo igandea, eusko araudia edo estatutoa aufera aberatzeko egunа eta bai atera ere eusko nekazari ta gañontzeko euskotar zintzoai eskefak.

Bigafen igandea, Donosti inguru eusko nekazari guztik bildu diran egunа. "Erbitegi" baserian ilda geldidu zanaren animaren izenean jaupa edo meza Aristimuño apaiz agurgafiak emana. Apaiz jaun onek an bildu giñan nekazarien sinismena ikusiz ilzalditxo bat egin zigun esanaz Eusko Nekazarien Bazkuna etzala berari zegozkion arazoak zaitzeko bakafik baizik animai ere begirapen aundiya ziyola ta aufera ere ofelaxe jafaitzeko arazo guziyen gañetik gure Jaungoikoa degula.

Esker beroenak gure "Aitzol" agurgafiari.

Mezu ondoren Bazkun nagusi edo federazioan batzafa; antxe ikusi genitun ezin konta ala nekazari ta beroyen artian Gofi, Lino, Murua ta abar.

Etxeruntz atera nitzanean "Pi y Margall" kale bila zebiltzan baserifar batzuk arkitu nitun. Esan zidatenek etxe jabiak deituta "Circulo tradicionalista"n biltzekuak ziran.

¡Auxe bai gogofa! Nekazari maistafai etxe jabiak deitu ta datofen igandean autarki edo botua "tradicionalisten" alde emateko eta beren auzo ta ingurukoai ere esateko oraingo ontan ausi edo eten egin bear dala ta ofegatikek laguntza eskatzen ziyotela .

¿Bañа Olazabal'en familiyak ez ote daki Eusko Nekazarien Bazkuna zer dan? ¿Ilaren bostgafenean Estatuto alde nola jokatu zun? ¿Eta Araudi edo Estatuto ori aufera eramango dutenen alde izango dirala beren autarki edo botuak?

Onelaxe nai luke beintzat.

LASARTE'KO EUSKO NEKAZARI BATEK

Jostun Kutxa

MERCERIA de la Viuda de Ibarzábal

OFRECE A USTED SU CASA

NARRICA, 3 TELEFONO 1-51-86

DIABETES

VINO URANADO PESQUI

Que alimenta el azúcar a razón de un gramo por litro

LABORATORIO PESQUI, Alameda, 17

San Sebastián (España)

Mugerza Igokiak

Zabaleta, 12 ta 14

12-763 urut. - DONOSTIA

Ascensores Muguerza

Gordoniz, 5

11-496 t. BILBAO

Onenak eta merkenak

F. Salaverri - Ortopédico

En San Sebastián. Todos los meses el día 1.º en el Hotel Arana, calle Vergara. Aplicación de aparatos ortopédicos para combatir MAL DE POTT, ESCOLIOSIS, COXALGIAS, PARALISIS, DEFORMIDADES DE LAS PIERNAS, HERNIAS, PIERNAS Y BRAZOS ARTIFICIALES. En Bilbao, Plaza San José, 2 (Clínica)

En Pamplona: Todos los meses, el día 3, en el Gran Hotel.

LOS CONSEJOS DEL MEDICO

Atienda a los primeros síntomas de su enfermedad

Sin estar precisamente enfermo, no se siente usted bien. El sueño no aportó a su organismo el consiguiente descanso y se siente fatigado ya en el acto de levantarse.

Además, su aliento es acre, nota cierto amargor de boca, la lengua es saburrosa, la saliva es como una pasta.

Al emitir la primera orina observa usted que despide un olor especial, su aspecto es turbio, rojizo.

En el curso de las horas, le asaltan crisis de irritabilidad; usted reprueba con harta frecuencia que perdió su habitual buen humor, ve que sus energías van mermando sensiblemente. Y, sin embargo... no hace tanto caso alguno de todos esos síntomas, quiere engañarse, prefiere luchar a estar seriamente enfermo que de cortar las raíces del mal que hay en embrión en su organismo.

Eso es insensato.

Si al aparecer los síntomas se acudiera a los beneficios de una ducha interna, si tratara de limpiar convenientemente los tejidos y purificar su sangre, no se expondría a caer más tarde a la boca del lobo del artritismo, cuya presencia se anuncia luego por crisis dolorosas y trastornos de todo género.

Cuántos sufrimientos podrían evitarse si a raíz de la aparición de los síntomas que detallamos, se tomara regularmente la dosis matinal de Urodonal, para expulsar el ácido úrico y demás venenos acumulados en el organismo.

Los beneficios de este lavado interno son incalculables y nos limitamos a citar aquí las palabras del eminente especialista Profesor Dr. Florentino Moliz del Hospital San Juan de Dios de Madrid, que dice:

"En cuantos casos he usado el Urodonal, he quedado satisfecho de sus efectos terapeúticos. Es eficacísimo para disolver el ácido úrico y combatir el reuma y el artritismo en general."

Seguramente le sería útil leer la obra del Dr. Dumas, "La Medicación del Hogar", que los Laboratorios del Urodonal, Apartado 718, Barcelona, remiten gratis a quien lo solicita. No deje usted de pedirla.

Sello YER

DOLOR DE CABEZA GRIPE RESFRIADOS DOLORES REUMATICOS Y NERVIOSOS Y LOS ESPECIALES DE LA MUJER

SELLO INSTANTANEO YER

PRECIO: 0'40 PESETAS

Granja Avícola BELATXARA

TELEFONO 379 OSAT

Razas Rhodes Island, Castellana, Negra, Leghor, Bi-nca. Huevos para incubar. Polluelos de un día desde una peseta. Nacidos en la famosa incubadora eléctrica americana "Peterson".

NOTA: No se reciben pedidos menores de 25 polluelos.

Dr. Clavero (dentista)

FUENTERRABIA, 4, principal